



ETXEAKO! BARRUNDIAKO GURASO ELKARTEA ETA BARRUNDIAKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA

Ozaetan, 2020ko irailaren 16an

BILDURIK

Alde batetik, Igor Medina Isasa, Barrundiako Udalaren Alkate-Udalburua izanik, beronen izenean eta ordez diharduena, horretarako behar bezala ahalmendua dagoelarik.

Eta bestetik, Blanca Esther Merino Suso andrea (18594397R), Etxeako! Barrundiako guraso elkartearen ordezkaria izanik (G01562073), horretarako behar bezala ahalmendua dagoelarik.

Alde biak hitzarmen hau egiteko eskumena eta gaitasuna aitortzen diote elkarri.

AURREKARIAK

LEHENA.- ETXEAKO! BARRUNDIAKO GURASOEN ELKARTEAren helburuak honako hauek dira:

.- Barrundiako haur, gaztetxo eta gurasoen elkarezagutza eta harremana sendotzeko bidea sortzea.

.- Haur, gaztetxo eta gurasoen aisialdi beharrei erantzunak aurkitzea.

.- Barrundiako biztanleen artean, elkarren ezagutza, kohesioa eta herrien bizitasuna pizteko ekimenak martxan jartzea.

.- Herritarron artean zaintza, haurrak, gazteak, helduak eta aiton-amonak kontuan hartuta eraikitzen ikastea.

.- Euskara, harreman onak, kultura berrien arteko irekitasuna, herritartasun erantzulea eta Barrundian bizi-poza ereitea da asmorik sendoena.

BIGARRENA.- Aurten, COVID-19 izurriteak sortutako egoera dela eta, jardueren kopurua murriztu behar izan da, beroien garapena segurtasun handiagorekin burutu ahal izateko aukerarekin beti ere familientzat, gurasoentzat eta gaztetxoentzat zuzenduak.

Beste alde batetik, material ezberdinak eskuratu dira jardueren garapenerako, behin izurritea bukatuta, ekintzak berriro normaltasunez egin ahal direnerako.



HIRUGARRENA.- Etxeako! Barrundiako Guraso Elkartearen erakundearen egoitza udalerriko Maturana herriko Beheko-etxe kaleko 8. zenbakian kokatzen da.

Honenbestez, Barrundiako Udalak eta Etxeako! Barrundiako Guraso Elkartearen erakundeak jarraian adierazitako hitzarmena sinatzen dute.

HITZARKINAK

LEHENENA.- ETXEAKO! BARRUNDIAKO GURASO ELKARTEAK 2020ko urtean honako emanaldi hauek burutu eta antolatu ditu:

- 2020ko uztailaren 13an: Horma-irudi tailerra (Ozaeta).
- 2020ko abuztuaren 22an: Zuhaitzak maitatzen tailerra (Maturana).

ETXEAKO! BARRUNDIAKO GURASO ELKARTEAK 2020ko urtean honako material hauek eskuratu ditu:

- Fabrikazio eta hornikuntza desberdinak (Txalaparta tamaina ezberdinetakoak, lokotxak 2 joku, ingude tamaina desberdinetakoak, harri jasotzeko zilindrikoak tamaina eta pisu desberdinetakoak).

BIGARRENA.- Barrundiako Udalak ETXEAKO! BARRUNDIAKO GURASO ELKARTEA erakundeak aurrez aipatutako lan-ildoak udalerrian gauza zitzan egindako ahaleginak suposatzen dituen gastuei aurre egiteko 5.000,00 eurotako dirulaguntza luzatuko du (2020ko Aurrekontu Orokorretako 334.481.012 partida).

HIRUGARRENA.- Dirulaguntzaren behin betiko ordainketa gastu guztiak zuritu ondoren emango da.

Aurrenekoa ikusita, alde biek adostasuna frogatuz, hitzarmen hau sinatzen dute, idazpuruan adierazitako leku eta egunean.

ALKATEA
Igor Medina Isasa

ETXEAKO! BARRUNDIAKO GURASO ELKARTEA

Blanca Esther Merino Suso